



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko otsailaren 2a

10 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua (2. or.).
- Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua (12. or.).
- Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua (16. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (20. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuak azal dezan zein neurri hartzen ari den Barne Produktu Gordinaren hazkundeak enplegu finkoaren sorkuntzan eta langabezi tasen jaitsieran islatu dadin, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egin (21. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko N-121 errepideko gasolindegiaurrean, Tafallako irtenbidean, belarri bat eraiki dezan, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (22. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (23. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko Nafarroako abeltzainek Iparlati eman behar dizkioten kopuruei aurre egiteko kreditu-osagarriari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezank, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (24. or.).
- Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzeko gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (24. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Tuterako Hizkuntz Eskolan ingeleseko 4. mailaren jarraipenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Calahorra Center merkataritza-proiektua San Adrianen kokatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko abenduaren 29an hartutako Erabakiaren bidez, errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramailen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1998ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Hiri barruko garraioari buruzko arautegia ezartzea oso-osorik Nafarroan barna diragaten

garraioen arloan Foru Komunitateari ez besteri dagokion eskumena erabiltzearen ondoriozkoa da.

Hala ere, errepideko garraioak hain afera nahasiak dituenez, beharrezkoa da eskumen hori agintaritzako maila guztiekin zintotasunez elkarlanean arituz erabiltzea. Hori dela eta, Autonomi Erkidegoek eta Estatuko Administrazioak garraio horren gorabehera komunak aurkeztu dituzte guztien lankidetzaren ondorio gisa, konstituzionaltasun blokeak eta garraio lanbidedunen beharrek ezarritako eskumen mugapenarekiko begirunez.

Foru Lege honetan hiri barruko garraioaren alderdi komunak biltzen dira eta arlo horren antolaketa osoan sartzen.

Zehazki, hiri barruko garraio kontzeptuak erabateko begirunea du toki entitateek arlo horretan dituzten eskumenekin, horrekin bestelako arauzko aurrekarietatik bereiztu arren.

Hala ere, garraio mota guztien ohiko sailkapenei eutsi zaie, dela lineakoa, dela lineaz kanpoko, etab., pentsatzen baita horrek laguntzen diola garraio sistemaren homogeneotasunari eta, orobat, zehapen araubidea horrela garraioari buruzko lehengo eta kasuan kasuko legeen parekotasunari atxikitzen zaio.

Azkenik, kontuan hartuz Nafarroako Udaletarako administrazio kontratazioari buruzko arautegia orohar aplikatzekoa dela, garraio zerbitzu publikoen kudeaketaren berezko gorabeherak bakarrik arautzen dira.

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua.

Foru Lege hau Foru Komunitatean diragaten errepideko hiri barruko garraio publikoei aplikatuko zaie.

Foru Lege honen ondorioetarako,

a) "Errepideko garraioa" da arrodatzeko bide finkorik gabe eta energia hartzeko baliabide finkorik gabe dabilzan automobiletan, hiri barruko edo hiriarteko lur gaineko edozein bidetan, delarik publikoa, delarik pribatua, egiten dena.

b) "Garraio publikoa" besteren kontu lansaria-
ren truk egiten dena da.

2. artikulua.

Udalak eskudunak dira orohar bidaiariendako garraio publikoko hiri barruko zerbitzuak antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zehatzeko. Ondorio horietarako, hiri barruko zerbitzutzat jotzen dira osorik kasuan kasuko udalerrian barna diragatenak.

3. artikulua.

1. Udalek hiri barruko garraio publikoko zerbitzuei aplika dakiekeen tarifa-araubidea proposatuko diote Foru Komunitateko Administrazioan salneurrien alorrean eskudun den organoari, baimenen titularrak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak ordezkatzan dituzten elkarteei entzun ondoren.

2. Hiri barruko lineako bidaiariendako garraio publikoak, besteak beste, dirusarrera hauen bidez finantzatu dira:

a) Zuzenean zerbitzuen erabiltzaileengandik lorturiko diru-bilketatik eta zerbitzu horiek ematen dituzten enpresen bestelako baliabideen ustiakuntzatik datozenen bidez.

b) Eskudun erakundeek horixe dutela helburu ezar litzaketen zerga-bilketen bidez.

c) Administrazio Publikoek egin litzaketen diru-ekarpenen bidez.

4. artikulua.

1. Errepideko hiri barruko bidaiariendako garraio publikoak lineakoak edo lineaz kanpokoak izan daitezke.

Lineako garraioak aldeztatik ezarritako ibilbideen barruan, aldeztatik finkaturiko egutegi eta ordutegi jarraikiz, egiten direnak dira.

Lineaz kanpoko garraioak aldeztatik ezarritako ibilbide, egutegi edo ordutegi jarraiki gabe egiten direnak dira.

2. Lehengo puntuan aipatzen diren lineako garraioak honakoak izan daitezke:

a) Jarraipenari dagokionez, iraunkorrak edo aldi baterakoak.

Lineako garraio iraunkorrak behar iraunkorrak betetzeko etenik gabe egiten direnak dira.

Aldi baterako lineako garraioak salbuespenezko edo abaguneko trafikoa burutzea xede dutenak dira, aldi mugatu batez dirautenak. Hala ere, aldi-aldi gerta daitezke, hala nola, azoka eta merkatu egunetan edo antzekoetan.

b) Erabileragatik, erabilera orokorrekoak edo berezikoak izan daitezke:

Erabilera orokorreko lineako garraioak eskari orokorra betetzea xede dutenak dira, interesatu orok erabil ditzakeelarik.

Erabilera bereziko lineako garraioak erabiltzaile talde berezi batendako, eskola-ume, langile eta antzeko talde homogeenentzako, kasu, dira.

5. artikulua.

1. Hirigintza osakeragatik, kokaguneagatik edo jende kopuruagatik edo ekonomi eta gizarte ingurubarragatik garraio sareen artean koordinazio arazoak dituzten Udal batzuen menpe dauden eskualde edo hiri multzoetan, Foru Komunitateko Administrazioak araubide berezia ezartzen ahalko du garraio sistema harmonikoa izan dadin bermatzeko.

2. Aurreko puntuan aurreikusten den helburua entitate publiko bat indarreko antolamenduan aurreikusiriko moduan sortuz lortzen ahalko da. Bertan, ukituriko udal edo entitateek hartuko dute parte eta kasuan kasuko eskualdeko garraio zerbitzuen antolamendu eta kudeaketa bakarra autonomia burutuko du edo delako antolamendu bakarra lehenagotik dagoen entitate publikoari esleitzen ahalko zaio, baldin eta Konstituzioak Udalei aitortzen dien autonomia behar bezala errespetatuko dela bermatzen bada.

3. Foru Komunitateko Administrazioak aurreko puntuan aipatzen diren udalez gairik entitateetako gobernu organoetan parte hartzen ahalko du, baldin eta haren eskumenak edo haren interesak ukitzen badira.

6. artikulua.

Hiri barruko bidaiari garraio zerbitzu publiko emateko, autoetan egiten diren bidaiarien garraio-zerbitzuak direnean izan ezik, eskudun Udalaren aurrean betebeharrak betetzen direla frogatu beharko da:

a) Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea. Kasu honetan, merkataritzako sozietatea, lan sozietate anonimoa edo lan elkarteko kooperatiba izan beharko du.

b) Espainiako, Europako Batasuneko beste estatu bateko edo, Espainiak izenpeturiko nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan xedaturikoaren

arabera, betebeharrak hori ezin eskatu dakioken atzerriko beste estatu bateko hiritartasuna izatea.

c) Lanerako gaitasun, izen on eta diru-ahalmen baldintzak, beharrezkoak direnak, frogatzea.

d) Indarra duen legediak ezarri dituen zerga, lan, gizarte eta aseguru eginbeharrak betetzea.

e) Gaitasun-agirien motei buruz espreski ezarritzen diren kasuan kasuko baldintzak betetzea, hala bada.

II. TITULUA

Bidaiariendako garraio publikoa

I. KAPITULUA

Lineako garraioak

1. Sekzioa

Erabilera orokorreko lineako garraio iraunkorra

7. artikulua.

1. Erabilera orokorreko lineako bidaiari garraio publiko iraunkorrak udal titulartasuneko zerbitzu publikoak dira eta kasuan-kasuan ezarritzen diren betebeharrak betetzen dituzten hiritar guztiek eskubide berbera dute haien erabiltzeko.

2. Aurreko puntuan aipatzen diren zerbitzuen kudeaketari dagokionez, Foru Lege honetan eta hori garatzen duten xedapenetan aurreikusten ez den guztian, administrazio kontratazioei buruzko arauei jarraikiko zaie.

8. artikulua.

1. Bidaiari garraio lineako zerbitzu iraunkorrak Administrazioaren ebazpenaren bidez ezarriko dira, non, orobat, zerbitzua emateko proiektua ere onetsiko baita.

2. Udalak onartu egiten du ebazpen hori, bai berak bai partikularrek hala erabakirik, kontuan hartuz garraioak gaur egun duen eta geroan izan lezakeen eskaria, horretarako dauden baliabideak eta ezarpen horiek ukitzen dituen edo hura ukitzen duten gainerako gizarte inguruabarrak ere.

9. artikulua.

Udalek bestelako hiriarteko lineako zerbitzuen lehenagotik baimenduak dauzkaten trafikoekin baterakideak diren lineako zerbitzu iraunkorrak edo aldi baterakoak ezartzeko, frogatu egin beharko da zerbitzua ez dela aski erabiltzaileen beharra egoki betetzeko eta, aldez aurretik, Foru Komunitateko Administrazioak bere oniritzia eman beharko du. Oniritzi hori emateko, bi zerbitzuen ustiakuntza koordinatzeko plana onesteko baldin-

tza ezar lezake. Haren prestakuntzan, hiriarteko lineako zerbitzuaren kontzesioaren titularra den enpresari entzun beharko zaio.

Trafiko baterakidetzat joko dira geralekuen artean egiten direnak, horietan hiriarteko zerbitzuak baimena badu bidaiariak hartu eta uzteko, baita geralekuetatik gertu dauden tokietan egiten direnak ere, horiek udalerrri berean ez badaude ere.

10. artikulua.

Erabilera orokorreko lineako zerbitzu iraunkorrak, orohar, administrazio kontzesioa ematen zaion enpresak egiten ditu.

Hala ere, horretarako zioak daudenean, Udalak erabakitzen ahalko du ustiakuntza zerbitzu publikoak kudeatzeko administrazio kontratazioa arautzen duen legerian aurreikusten den beste edozein prozeduraren bidez burutzea.

Lehen aurreikusirikoa galarazi gabe, zerbitzu baten zuzeneko kudeaketa publikoa bidezkoa izanen da zeharkako kudeaketa haren izaerarako egokia ez denean, lortu nahi diren ekonomi edo gizarte helburuetarako balio ez duenean, edo interes publikoagatik edo ekonomi eta gizarte zioengatik beharrezkoa denean. Gorabehera horiek gertatzen direnean, Udalak zuzenean ematen ahalko ditu erabilera orokorreko garraio publiko iraunkorreko zerbitzuak. Horiek kudeatzeko enpresen kudeaketa publikoari buruz indarra duen legeriak onartzen duen edozein figura erabiliko da.

11. artikulua.

1. Kontzesioak lehiaketa bidez esleituko dira, prozedura irekian.

2. Zerbitzuak emateko proiektuak zuzenbide, ekonomi, teknika eta administrazio baldintzen pleguaren oinarritako balioko du. Hark oinarritzko zerbitzuak eta osagarriak bilduko ditu, eta ibilbideak, egin daitezkeen trafikoak, geralekuak, tarifa araubidea, ibilgailuen gutxieneko kopurua, horiek amortizatzeko gehieneko epea, hala bada, behar diren instalazio finakoak eta zerbitzua zehazten eta haren emanaldia osatzen duten gainerako inguruabarrak ere bai.

3. Aurreko puntuan aipatzen diren baldintza eta inguruabarrak gutxieneko betebeharrak gisa edo orientazio gisa ezartzen ahalko dira baldintza plegetan. Enpresa lehiakideek, ezarritako mugen barruan, halakorik bada, kasuan kasuko pleguko baldintzak zehazten, gehitzen edo aldatzen duten eskaintzak aurkezten ahalko dituzte, baldin eta

zerbitzuaren edo haren emanaldiaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

12. artikulua.

Kontzesioen iraupena baldintza pleguan ezarriko da, zerbitzuaren ezaugarri eta beharren arabera, ukituriko ondasunak amortizatzeko epeak kontuan hartuko direlarik. Iraupen hori, gutxienez ere, hamar urtekoa izanen da eta, gehienez ere, hogeita bostekoa. Kontzesioaren epea bukatzen denean, zerbitzuaren ondorengo emanaldia zehazteko prozedura bukatu baino lehen, kontzesio-hartzaileak prozedura bukatu arte luzatuko du bere kudeaketa. Behin ere ez da beharturik egon hamabi hilabete baino gehiagoz kudeaketa horretan irautera.

13. artikulua.

1. Lehiaketako baldintza pleguan, behar bezala ponderaturik eta goitik beherako hurrenkeran, esleipenaren abiapuntutako balio behar duten irizpide objektiboak ezarriko dira, hala nola tarifak, ibilgailuen abialdien kopurua, zerbitzua emateko eskainiriko plazen kopurua, ibilgailuen ezaugarriak, haien aintzinasuna eta bestelako hobe-kuntzak.

2. Beti ere, sobera garestiak edo sobera merkeak diren diru-baldintzak ezartzen dituzten eskaintzak, teknikoki egokiak ez direnak, edo behar bezala eta zehazki zerbitzua eta haren jarraipena bermatzen ez dutenak, ezetsi beharko dira.

Eskaintzen proportziogabetasuna edo ausarkeria administrazio kontratazioari buruzko arautegian ezarritako irizpide objektiboekin jarraituz neurtuko da.

14. artikulua.

1. Zerbitzua kontratuan finkaturiko baldintzetan eman beharko da. Hark baldintza pleguak ezartzen dituenak bilduko ditu, esleipen-hartzaileak eskaini eta Udalak onartzen dituen zehaztapen edo aldaketak barne.

2. Erregelamendu bidez, edo kontratuan berean, zerbitzua hobeki kudeatzeko, enpresak, Udalarari jakinarazirik, askatasunez alda ditzakeen inguruabarrak ezarriko dira. Udalak, interes publikoaren kontrakoak direnean, debekatzen ahalko ditu aldaketa horiek edo erabiliak izateko muga zehatzak ezartzen.

3. Udalak, ofizios edo esleipen-hartzaileek edo erabiltzaileek eskaturik, emanaldiaren baldintzeta-ko aldaketak, kontratuan ez aurreikusitakoak, onesten ahalko ditu, baita ibilbideen gehitze, gutxitze edo ordezteak ere, zerbitzua hobeki emateko beha-

rezkoak edo komenigarriak badira. Beti ere, beharturik egonen da kontzesioaren oreka ekonomikoa errespetatzera.

15. artikulua.

1. Justifikatzen duten interes publikoko arrazoi objektiboak daudenean, lehenagotik daudenak ez beste zerbitzu bat ezartzea bideragarria edo bidezkoa ez denean, Udalak, ofizios edo alde batek eskaturik, kontzesioetako oreka ekonomikoa errespetatuz, erabakitzen ahalko du kasuan kasuan kontzesioa izan duten zerbitzuak bateratzea, haien emanaldia enpresa batasuneko araubidean egin dadin.

Bateraturiko zerbitzuak aurrekoen iraungipena ekarriko duen beste kontzesio baten xede izanen dira. Irauteko epea, artikuluko honetako 3. idazatian aipatzen den kasuan izan ezik, bateratzen diren zerbitzuei dagozkien kontzesioetan dirauten indarraldien eta kasuan kasuko trafikoen arabera finkatuko da. Faktore horiek aplikatzearen ondoriozko epea 100eko 20 gehitzen ahalko da.

2. Bateratu behar diren kontzesioak titular berarenak direnean, bateratzeko erabakiak berarekin ekarriko du bateraturiko kontzesioaren aldeko zuzeneko esleipena.

Zerbitzuak enpresa ezberdinei emaniko kontzesioei dagozkienean, ondoriozko kontzesioaren titulartasun bakar berria zehazteko prozedura arau hauei jarraituko zaie:

a) Udalak kontzesio-hartzaileak gonbidatuko ditu behar diren transferentziak egitera, kontzesioa titular bakar batek izan dezan. Titular bakarra kontzesio-hartzaileetariko bat edo haiek guztiek edo haietariko batzuek osaturiko elkarteak izan daitezke.

b) Sei hilabeteko epearen barrenean itunik lortzen ez bada, kontzesio-hartzaileen artean lehiaketa bat eginen da, zerbitzu sortu berrietarako aurreikusitako bezala. Bertako gehieneko tarifa bateratzen diren kontzesiorik garestiena izanen da.

3. Kontzesioa aurreko idazatian aurreikusirik prozeduretan esleitzen ez bada, beste lehiaketa bat eginen da, izan litezkeen lehiakideei dagokienez, inolako mugarik gabe, Foru Lege honetan ezarritako baldintza orokorrekin bat.

4. Kontzesio berriaren esleipen-hartzaile gertatzen ez diren aintzinako titularrei ordain bat emanen zaie eraginiko kalteengatik, administrazio kontratazioari buruzko arautegian xedaturikoarekin bat.

16. artikulua.

1. Kontzesioak administrazio kontratazioari buruzko arautegian ezarritako zioengatik iraungiko dira.

2. Halaber, kontzesioak iraungitzeko zioak izanen dira:

a) 27.5 artikuluan aurreikusiriko oinarritzko baldintzak ez betetzea.

b) 6. artikuluan aurreikusiriko betebeharrak galtzea.

2. Sekzioa**Aldi baterako lineako garraioak****17. artikulua.**

1. Aldi baterako lineako bidaiari garraiotzat hartuko dira:

1) Gutxi dirauten aldietan, hala nola, oporretan, urtaro batean eta aparteko azoka eta erakusketetan etenik gabe ematen direnak.

2) Urtean etenik baina aldi-aldi, hala nola, ohiko merkatu eta azoketan ematen direnak.

2. Aldi baterako lineako zerbitzuak baino lehen, Udalak, ofizios edo alde batek eskaturik, haren ezarpenari eta hartarako baldintzei buruz erabakia hartu beharko du. Ezarpena bakar-bakarrik erabakitzen ahalko da, garraio eskariaren aldi baterako edo aparteko izaeragatik, erabilera orokorreko garraio zerbitzua ezartzeko beharra aski den moduan justifikaturik dagoenean, baldin eta gorabehera hauek gertatzen badira:

a) Kasuan kasuko garraio beharrak aski den moduan betetzen ahal dituen erabilera orokorreko lineako zerbitzu iraunkor baterakiderik ez dagoenean.

b) Erabilera orokorreko lineako zerbitzu iraunkor baterakidea badago ere, bi baldintza hauetariko bat gertatzea:

1) Betetzekoak diren garraio beharretarako egokitzeak zerbitzu baterakidea ustiatzeko kasuan kasuko kontzesioan ezarritako baldintzetan funtsezko aldaketa ekartzea.

2) Betetzekoak diren garraio beharrak hain bereziak izatea, ezen komeni baita zerbitzu independente bat ezartzea.

3. Horretarako gaitzen duen administrazio baimen berezia eskuratzen dutenek ez bestek egiten ahalko dituzte aldi baterako lineako garraioak.

3. Sekzioa**Erabilera bereziko lineako garraioak****18. artikulua.**

1. Erabilera bereziko lineako bidaiari garraioak egiteko, beharrezkoa izanen da alde aurretik Udalak horretarako emanen duen baimen berezia lortzea.

Baimen hori alde aurretik erabiltzaileen ordezkariekin garraioa kasuan kasuko kontratu edo aurrekontratuaren bidez hitzartua duten enpresei emanen zaie. Horretarako, zerbitzua emateko behar diren gauzazko baliabideak badauzkala frogatu beharko du.

2. Erabiltzaileen ordezkarietat joko dira, haiekin jarraera bereziaren arabera, garraiolariarekiko harremana bere gain hartzen dutenak, hala nola, ikastetxeetan eskudun diren administrazio organoak, ikastetxeen edo ekoizpen zentroen jabe edo zuzendariak, ikasleen gurasoen edo langileen elkarteen ordezkariak eta antzekoak.

3. Baimenetan ustiakuntzarako baldintza bereziak ezarriko dira eta erabiltzaileekiko kontratuak aipatzen duen eperako emanen dira.

II. KAPITULUA**Lineaz kanpoko garraioak****1. Sekzioa****Lineaz kanpoko garraioa bederatzi baino gehiago plaza dauzkaten ibilgailuetan****19. artikulua.**

Bederatzi baino gehiago plaza dauzkaten ibilgailuen bidezko hiri barruko lineaz kanpoko bidaiari garraio zerbitzuak emateko, beharrezkoa izanen da horretarako gaitasun-agiria alde aurretik eskuratzea.

Horretarako dagoen arautegiaren arabera ematen diren hiriz gaindiko lineaz kanpoko bidaiari garraiorako baimenek gaitasuna emanen dute haiek dagozkion esparruan hiri barruko garraioa egiteko.

Udalek gaitasun-baimenak ematen ahalko dituzte lineaz kanpoko garraioa bakar-bakarrik hiri barrurako diren eta bederatzi baino gehiago plaza dauzkaten ibilgailuetan egiteko.

2. Sekzioa**Lineaz kanpoko garraioa autoetan****20. artikulua.**

1. Hiri barruko bidaiari garraio zerbitzua autoetan emateko, beharrezkoa da ibilgailuak hel-

bidea dueneko Udalak gaitasun-lizentzia ematea aldez aurretik.

Hiri barruko garraioko zerbitzuak turismoetan emateko udal lizentziak kategoria bakarrekoak izanen dira eta taxi-lizentziak izena izanen dute.

2. Udal lizentzia horiek emateko, beharrezkoa izanen da, eskudun Udalaren aurrean, betebeharrak hauek betetzen direla frogatzea:

a) Pertsona fisikoa izatea.

b) Espainiako, Europako Batasuneko beste estatu bateko edo, Espainiak izenpeturiko nazioarteko tratatu edo hitzarmenetan xedaturikoaren arabera, betebeharrak hori ezin eskatu dakiokkeen atzerriko beste estatu bateko hiritartasuna izatea.

c) Indarra duen legeriak ezarri dituen zerga, lan, gizarte eta aseguru eginbeharrak betetzea.

3. Auto bidezko hiri barruko garraiorako udal lizentziak eman, erabili, aldatu eta iraungitzeko araubidea, baita zerbitzua ematekoa ere, Udalek horretarako emanen dituzten arauetara egokituko dira. Udalek Foru Komunitateko Administrazioak ezarritako arauak eutsi beharko diete.

Bereziki, azken honek xedatzen ahalko du zenbat taxi-lizentzia ematen ahalko diren gehien ere udalerrira bakoitzean, bertan bizi den jendearen eta bestelako irizpide objektiboen arabera, garraio sistema orokorrak behar bezala jardutea bermatzeko beharrezkotzat jotzen duenean.

21. artikulua.

1. Udal batzuetako garraio zerbitzuen artean harremana edo elkarrenganako eragina dagoenean, zerbitzu horien antolaketa egokiak haietariko bakoitzaren interesa gaintzen baldin badu, Foru Komunitateko Administrazioak Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutiak ezartzen ahalko ditu. Horietan behar bezala baimenduriko ibilgailuek eskumena izanen dute edozein zerbitzu emateko, dela hiri barrukoa, dela hiriartekoa, baldin eta oso-osorik Barruti horien barruan burutzen bada, ibilgailuak helbidea dueneko udalerrira gaintzen duenean edo hortik kanpo abiatzen denean ere bai.

2. Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutiak ezartzeko, gutxienez ere bertan sartu nahi diren Udalen bi herenen adostasun txostenaren beharra egonen da. Udal horiek, gainera, Barrutiko bizilagunen % 75 bildu beharko dituzte, gutxienez ere.

Prozeduran taxi-lizentzien titularrak ordezkatzeko dituzten elkarteak entzun zaie.

3. Zerbitzuak Elkarrekin Emateko Barrutietan zerbitzuetarako gaitasun-baimenak Foru Adminis-

trazioak edo baimenei buruzko arauak izendatzen duten enteak banatuko ditu.

4. Halaber, Foru Komunitateko Administrazioa eskudun izanen da, arautegia orokorrari lotuz, zerbitzua arautu eta antolatzeke behar diren egin-kizunak burutzeko.

III. TITULUA

Zehapen araubidea

22. artikulua.

1. Errepideko hiri barruko bidaiariendako garraio publikoari buruzko arauak hausteagatik izan litekeen administrazio erantzukizuna hauei dagokie:

a) Administrazio kontzesio, baimen edo lizentziaren xede diren garraio edo jarduerak burutzen ari direlarik eginiko arau-hausteetan, kontzesio, baimen edo lizentziaren titularrak den pertsona fisiko edo juridikoari.

b) Behar den administrazio agiriak babestu gabe eginiko garraio edo jarduerak burutzen ari direlarik eginiko arau-hausteetan, jardueraren titularrak den pertsona fisiko edo juridikoari, edo ibilgailuaren jabeari.

c) Erabiltzaileek eta, orohar, lehengo idaztatutako aipatu ez badira ere, errepideko hiri barruko bidaiari garraioa arautzen duen legeriak ukituriko jarduerak burutzen dituzten hirugarrenek eginiko arau-hausteetan, hautsiriko agindua dagokion pertsona fisiko edo juridikoari edo kasuan kasuko arauak espreski erantzukizuna eratzikitzen diotenari.

2. Foru Lege honetan aipatzen diren arau-hausteagatik administrazio erantzukizuna eskatuko da, zigor, trafiko edo lan legedia edo aplikatzekeak diren bestelakoak hausteagatik legokeena deustan galarazi gabe.

3. Administrazio erantzukizuna 1. puntuak aipatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoei eskatuko zaie, egitez arau-hausteak leporatzen ahal zaizkien pertsonen aurka bidezko diren ekin-tzak deustan galarazi gabe.

23. artikulua.

Errepideko hiri barruko bidaiariendako garraio publikoari buruzko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

24. artikulua.

Oso arau-hauste larritzat joko dira:

a) Garraio publikoak behar den kontzesio, baimen edo lizentzia eduki gabe egitea.

Batera Foru Lege honetan arautzen diren kontzesio, baimen edo lizentziatariko bat beharrezkoa duten zerbitzuen emanaldia idazati honetan tipifikaturiko arau-haustean sartutzat jotzen da, bai bata edo bestea falta dutenean, bai biak falta dituztenean.

Baimena ez edukitzea, aurreko lerroetan xedatua xedatu, arau-hausleak administrazio baimena hartzeko betebeharrak betetzen dituztenean, hots, berak eskura zezakeenean, 26. artikuluko a) idazatian aurreikusirikoaren arabera zehatuko da.

b) Bidaiari garraioko lineako zerbitzuak behar den lizentzia, kontzesio edo baimen bereziaren jabe izan gabe antolatu, ezarri edo burutzea, haiek emateko baliabideak norberarenak edo beste inorenak direlarik ere.

c) Ibilgailuan, ikusgai dagoen toki batean, baimenaren xede ez den garraio mota bateko ezau-garria eramatea.

d) Ikuskaritza zerbitzuen jarduketei uko egitea edo horiek oztopatzea, legez edo erregelamenduz haiei dagozkien eginkizunetan aritzea eragozteko. Horien artean daude ikuskaritza zerbitzuek edo, eskuordeturik dauzkaten eskumenak erabiliz, zuzenean garraioa zaintzen eta kontrolatzen duten agenteek emaniko aginduei jaramonik ez egitea eta, bereziki, legez aurreikusiriko kasuetan ibilgailuak geldiarazteko aginduak ez betetzea.

e) Beste inoren izenean luzaturiko gaitasun-agiriak erabiltzea. Arau-hauste horren erantzukizuna beste inoren administrazio agiriak darabiltzateni ez ezik agiriak beren izenean dituztenei ere dagokie, salbu eta haiek baimendu gabe erabili direla frogatzen denean.

f) Kontzesiorako epea bukatu baino lehen kontzesioa eskutik uztea edo zerbitzuak geldiaraztea, Administrazioak bere oniritzia eman gabe eta horren berri jakin gabe.

g) Arau-hauste larriak, Foru Lege honetako 25. artikuluan aurreikusirikoaren arabera, errudunak, haiek egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bideko behin betiko ebazpenaren bidez, zehapena hartu duenean artikuluko hartako idazati berean tipifikaturiko beste arau-hausteagatik.

h) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak ehuneko hogeita hamar edo gehiago direnean.

25. artikulua.

Arau-hauste larritzat jotzen dira:

a) Foru Lege honetan, hori garatzen duten xedapenetan edo Udalek lizentziak, kontzesioak edo baimenak emateko ezartzen dituzten xedapenetan aipaturikoez beste baldintzetan zerbitzuak ematea, salbu eta, 24. artikuluan xedaturikoarekin bat, oso arau-hauste larritzat jotzen denean.

b) Bidaiari garraioko zerbitzu publikoak horretarako baimendurik ez dagoen pertsona fisiko edo juridikoaren bitartekaritza erabiliz ematea, Foru Lege honetako 24. artikuluko a) idazatian aurreikusirikoarekin bat, bitartekariari legokiokeen zehapena deustan galarazi gabe.

c) Ados jartzea baimendurik ez dagoen bitartekaritza jardutean edo bestelako helburuetarako erabiltzen diren lokal edo saltoki publikoetan isilpeko zerbitzuetarako bileteak saltzean. Erantzukizuna lokala zertarako erabili eta horrexetako industria edo zerbitzuen titularrari dagokio.

d) Isilpeko zerbitzuetarako bileteak saltzea eta, orohar, baimendurik ez dauden zerbitzu edo jardurekin bitartekari lanetan aritzea, bitartekaritza aritzeko gaitasun-agiria eduki gabe, egon litekeen oso arau-hauste larria aintzat hartzea deustan galarazi gabe.

e) Tarifa araubidea ez betetzea.

f) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak ehuneko hamar baino gehiago eta ehuneko hogeita hamar baino gutxiago direnean.

g) Erabiltzaileek erreklamazioak aurkeztu behar dituzteneko nahitaezko liburua ez edukitzea, jendeak hori erabiltzeko eskubideari uko egitea edo eskubide hori oztopatzea, baita, ziorik gabe, liburu hartan jasotzen diren erreklamazio edo kexak ikuskaritzari ezkutitzea edo berandu jakinaraztea ere.

h) Nahitaezko agirietan eskatzen diren datuetan huts edo gezur egitea.

i) Ziorik gabe, Administrazioak esku harturik, aldeztatik ezarritako zerbitzuetako ordutegiak behin eta berriro ez betetzea.

j) Ikuskaritza zerbitzuen jarduketari uko egitea edo oztopatzea, 24. artikuluko d) idazatian aurreikusten diren gorabeherak gertatzen ez direnean.

k) Garraioa horretarako behar bezala baimendurik ez dauden garraiolari edo bitartekariarekin kontratatzea, baldin eta, enpresaren kontratazioak, kasuan kasuko urtean edo aurrekoan, hama-bost zerbitzu egin badu guztira.

l) Administrazio kontzesio edo baimena emateko 27.5 artikuluan aurreikusten diren funtsezko baldintzak ez betetzea.

ll) Aurreko artikuluan aurreikusten den edozein arau-hauste, izaera, une edo inguruabarrengatik oso larritzat jo behar ez denean.

m) Arau-hauste arinak, Foru Lege honetako 26. artikuluan aurreikusirikoaren arabera, errudunak, haiek egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bideko behin betiko ebazpenaren bidez, zehapena hartu duenean artikulua hartako idazati berean tipifikaturiko beste arau-hausteagatik.

n) Aurreko idazatietan aipatzen ez den beste edozein arau-hauste, errepideko hiri barruko bidaiarien garraioari buruzko arauak, Foru Lege honetako oinarriekin bat, larritzat jotzen dutena.

26. artikulua.

Arau-hauste arintzat joko dira:

a) Aldez aurretik lizentzia, kontzesioa edo baimena behar duten garraioak halakorik eduki gabe egitea, baldin eta hura eskuratzeko betebeharrak betetzen badira.

b) Garraio publikoak egitea horietarako legeko gaitasuna frogatzen duten agiri formalak ibilgailuan eraman gabe.

c) Baimenduriko garraio motari buruz indarra duen arautegian eskatzen diren ezaugarriak ibilgailuan, ikusgai den tokian, ez eramatea, edo horiek ikustea zaila den moduan eramatea, baita ezaugarri horiek behar ez bezala erabiltzea ere, Foru Lege honetako 24. artikuluko c) idazatian aurreikusirikoarekin bat oso huts larritzat jo behar denean izan ezik.

d) Kasuan kasuko ibilgailurako baimenduriko bidaiari kopurua baino bidaiari gehiago garraiatzea, soberan daudenak ehuneko hamar baino gutxiago direnean.

e) Jendeak ezagut ditzan, ikusgai egon behar duten tarifa koadro, egutegi, ordutegi, ohar eta beste ez edukitzea.

f) Instalazio finkoetan eta ibilgailuetan poliziako arau orokorrak ez betetzea, aurreko artikuluetan aurreikusirikoarekin bat, ez-betetze hori oso arau-hauste larritzat edo larritzat jo behar denean izan ezik.

g) Erabiltzaileak gaizki tratatzea. Idazati honetan aipatzen den arau-haustea erabiltzaile eta kontsumitzaileen eskubideei buruzko arautegiak aipatzen dituen kasuak kontuan harturik zehatuko dira.

h) Erabiltzaileek Udalek hiri barruko bidaiari garraio publikoko zerbitzua erabiltzeko ezartzen dituzten baldintzak ez betetzea.

i) 25. artikuluan aurreikusiriko edozein arau-hauste, izaera, une edo inguruabarrengatik larritzat jo behar ez denean.

j) Aurreko idazatietan aipatzen ez den beste edozein arau-hauste, errepideko hiri barruko bidaiari garraioari buruzko arauak, Foru Lege honetako hastapenekin bat, arintzat jotzen dutena.

27. artikulua.

1. Arau-hauste arinak gehienez ere 46.000 pezetako isunez zehatuko dira; larriak, 46.001 pezetatik 230.000 pezeta bitarteko isunez eta oso larriak 230.001 pezetatik 460.000 pezeta bitarteko isunez. Ezartzen den zehapenaren zenbatekoa, aurreko erroaldeko mugen barruan, arau-haustearen gizarte eraginaren, asmo maltzuraren, eraginiko kaltearen, halakorik bada, eta eginiko arau-hausteen kopuruaren arabera mailakatuko dira.

2. 24. artikuluko a), b) edo h) idazatietan aurreikusiriko arau-hausterik egiten bada, bidezko den diru-zehapena deustan galarazi gabe, garraioa egiten deneko ibilgailua prezintatzen ahalko da eta hari dagokion baimena bertan bera uzten, baita jarduerak egiten direneko lokala ixten ere, bi kasuetan urtebetez, gehienez ere.

24. artikuluko e) atalean aurreikusiriko arau-haustek, bidezko den diru bidezko zehapenez gain, bere baimena ezeztatzea ere ekarriko du.

3. Foru Lege honetako 24. artikuluan aurreikusiriko arau-hausteen erantzuleak artikulua horretako idazati berean tipifikaturiko arau-hausteagatik, hori egin baino lehenagoko hamabi hilabeteetan, administrazio bideko behin betiko ebazpenaren bidez zehatuak izan direnean, arau-haustek jarduera edo zerbitzuaren emanaldia babesten zuen administrazio baimena aldi baterako, gehienez ere urtebetez, bertan behera uztea ere ekarriko du berarekin. Hamabi hilabeteko epe horretan eginiko hirugarren edo ondorengo arau-haustek berarekin ekarriko dute baimena aldi baterako edo behin betikoz kentzea. Epe hori kontatzeko, baimena aldi baterako bertan behera utzia zelako, jarduera ezin burutu izan deneko aldiak edo zerbitzua ezin eman izan denekoak ez dira aintzakoztat hartuko.

Zerbitzua emateko baimen berezia eta lineaz kanpoko bidaiari garraiorako gaitasun-baimena batera behar direnean, idazati honetan aipatzen dena baimen bereziari dagokionez bakarrik utziko da bertan behera, salbu eta lineaz kanpoko

garraiorako baimena harekin batera eman denean. Kasu horretan biak utziko dira bertan behera.

4. 24. artikuluko a), b) edo h) idazatietan edo 25. artikuluko f) idazatian aurreikusirikoaren bat salatu behar diren arau-hausteak gertatzen direnean, ibilgailua berehalaxe geldiarazteko agindua ematen ahalko da, harik eta arau-haustearen zioak desagertu arte. Erabiltzaileek ahalik eta endredu gutxien paira ditzaten behar diren neurriak hartzen ahalko ditu Administrazioak.

5. Foru Lege honetan arauturiko administrazio kontzesio eta baimenen funtsezko baldintzatzat joko dira:

a) Kontzesioei dagokienez:

- 6. artikuluan ezarritako betebeharrei eustea.
- Zerbitzua burutzea.
- Zerbitzuak baimenduriko trafikoen arabera ematea.
- Zerbitzua kontzesio-hartzaileak berak ustiatzea, espreski baimenduriko lankidetzak kasuetan izan ezik.
- Ezarritako geralekuak errespetatzea, baita ibilbidea, egutegia, ordutegia eta tarifak ere, ezinbesteko kasuetan edo ustekabeen izan ezik.
- Kontratuan ezarri bezainbat abialdi egitea, baita hartan ezartzen diren gutxienerako ibilgailuak edukitzea ere. Ibilgailu horiek eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

b) Baimenei dagokienez:

- 6. artikuluan ezarritako betebeharrei eustea.
- Ibilgailuak bidaiariak garraitzeko duen ahalmen osoa kontratatzea.
- Zerbitzua baimenaren xede den ibilgailuaz ematea eta horrek eskatzen ahal diren teknika eta segurtasun baldintzak betetzea.

6. Foru Lege honen arabera ezartzen ahal diren zehapenak deustan galarazi gabe, administrazio kontzesio edo baimenen funtsezko baldintzak behin eta berriro ez betetzeak edo larriki ez betetzeak kontzesioa iraungitzea edo baimena bertan behera uztea ekartzen ahalko du, fidantza galdurik, hala bada.

28. artikulua.

24. artikuluko g) idazatian eta 25. artikuluko n) idazatian aurreikusten diren larriagotzeak kasu hauetan baizik ez dira aplikatzekoak izan:

a) Arau-hausteak administrazio kontzesio edo baimen beraren xede diren zerbitzuak ematen edo jarduerak burutzen ari direlarik egin direnean.

b) Arau-hausteak zerbitzu edo jarduera horietarako gaitasun-agiria eduki gabe egin direnean, baldin eta haien zerbitzu edo jardura bera burutzean gertatu badira, hots, gaitasun-agiri bakarren babesean eman beharko zirenak.

c) Arau-hausteak errudun berari egozten ahal zaizkionean, Foru Lege honetako 22. artikuluko 1. puntuko c) idazatiak aipatzen dituenen artetik.

29. artikulua.

Oso arau-hauste larriak, gertatu eta hiru urte pasata iraungiko dira; larriak, bi urte pasata eta arinak, urte bat pasata.

30. artikulua.

Zehapen prozedura ebazteko gehieneko epea urtebetekoa izanen da, hasten denetik aurrera.

Epe hori ebazpenik eman gabe bukaturik, prozedura iraungitza joko da eta artxibatu egiten dira haren jarduketak. Arau-haustea iraungi izan ez balitz, beste zehapen prozedura bati ekin lekiok.

31. artikulua.

1. Foru Lege honetan aurreikusiriko zehapenak ezartzeko eskumena legez edo erregelamenduz eskuordeturik daukaten udal organoei dago.

Zehapen horiek ezarri eta betearazteko prozedura administrazio prozedurari buruzko arauari jarraikiko zaie.

2. Behin betiko ebazpenaren bidez ezarritako diru bidezko zehapenak ordaintzea ezinbesteko baldintza izanen da oniritzia eman ahal izateko, baita hiri barruko garraioa egiteko gaitasun-agiriak eskualdatzeko administrazio baimena jasotzeko ere.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Bestelako garraio motak.

Salgai garraioari eta bidaiari garraio osagarriari buruzko udal eskumenak hiri barruko zirkulazio eta trafikoan izan dezaketen eraginari buruzko gorabeheretara mugatuko dira.

Bigarrena. Osagarritasuna.

Foru Lege honetan edo hori garatzeko emandako arauetan aurreikusirik ez dagoen guztian, Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren hiriarteko garraioetarako indarra duen araubide

juridikoa izanen da hiri barrukoei osagarritasunez aplikatzekoa, haien izaera bereziarekin bateragarri den guztian.

Aplikatzekoak diren arau orokorrak errespetatuz, Udalek arau bereziak ezartzen ahalko dituzte hiri barruko bidaiari garraioko zerbitzuei dagokienez.

Hirugarrena. Zenbatekoak gaurkotzea.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege honetan ezarririko diru-zenbatekoak gaurkotzeko, diruaren eros-balioaren aldaketetara egokitzeko, Nafarroako kontsumorako prezioen indizearen arabera.

Azken xedapenak

Lehena. Arauzko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak emanen ditu.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1997ko abenduaren 29an hartutako Erabakiaren bidez, Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Herrilan eta Azpiegitura Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1998ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Iruñerriko lineako bidaiari garraioari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Gaur egun, Iruñak eta inguruko udalerriek hainbat gune konpartitzen dituzte, baita interes eta arazo franko ere; bidaiarien garraio erregularra, esate baterako.

Garraiorako eskubidea, hau da kalitate eta prezio egokian hiritarren mugikortasuna bermatzea, aginte publikoen betebeharra da, eta arazo horri taxuzko irtenbidea ematen saiatu beharra dute.

Dena den, garraio arloko eskumenen banaketa dela eta, dagokigun eskualdeko lineako bidaiarien garraibide batzuk hiri barrukoak dira eta beste

batzuk hiri artekoak. Lehenbizikoak kudeatzeko eskumena kasuan kasuko udalei dagokie eta bigarrenak kudeatzekoa Foru Komunitateko Administrazioari.

Nafarroako Foru Komunitateko hiri barruko garraioaren arautegia ezarri delarik, orain udalerrietako mugetatik kanporako bidaiarien garraio kolektiboa antolatzeko araubide berariazkoa finkatu behar da eta, horrekin batera, kasuan kasuko eskumenak, antolamendu administratiboa, egungo egoeratik araubide berriak ekarri duenerako igarobidea eta planteatzen diren edo arautu behar diren gainerako alderdiak zehaztu; hemen aurreikusita ez dagoen orotan, Nafarroako Foru Komunitateko errepideko hiri barruko garraioa arautzen duen aipatu Foru Legean, hiri barruko garraiorako araubide orokorrari dagokionean, ezarritakoa aplikatuko da.

Beste autonomi erkidego batzuetan izandako esperientziak eta arazoa konpontzeko aukerabiak kontuan hartu badira ere, Foru Lege honetan, zerbitzuaren prestazioaren beharrak ikusita, egokitzat hartu dugun bidea garatu da, eskumena duten administrazio publikoek egun bere gain hartu dezaketena baita. Hori horrela, zerbitzuaren kudeaketa Iruñerriko Mankomunitatearen esku uzteko aukera eskaini da, beste zerbitzu publiko batzuetan gaur arte erakutsi duen gaitasuna kontuan hartuz.

Kudeaketa hori, hortaz, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna duen toki entitate bati esleitu zaio. Udalen autonomia, nolana ere, aski bermatuta geldituko da, udalek mankomunitatean duten partaidetzaren bitartez.

Halaber, biziguneen jarraipen etengabea ikusita, eta Foru Lege honetako garraio zerbitzuaren kudeaketa bateratua egin ahal izateko araubide berariazko hau ezartzea eskatzen duten gainerako inguruabarrak kontuan harturik, bertan mugatzen den eskualdeko garraioa hiri barrukotzat hartu da, horrela gaudituko baita hiriarteko eta hiri barruko garraioaren arteko eskumenen mugapena.

Foru Lege hau eman da Nafarroatik atera gabe egiten den garraioaren arloan Foru Komunitateak duen erabateko eskumenaz baliaturik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 12/1982 Lege Organikoaren 49.1.f. artikulua indarrez.

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da 3. artikuluan zehazten den eremutik atera gabe egiten den erabilera orokorreko lineako bidaiari garraio publikoa, iraunkorra nola aldi baterakoa, arautzea.

2. artikulua. Garraioaren izaera.

Foru Lege honetan arautzen den garraioa hiri barruko garraiotzat hartu da.

3. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Foru Lege honek arautzen duen hiri barruko garraioaren aplikazio eremua honako udalerrri hauek osatuko dute:

- Antsoain.
- Aranguren: Mutiloabeiti eta Mutiloagoiti biziguneak, hain zuzen.
- Barañain.
- Beriain.
- Berribeiti, Aitzoain eta Artikako kontzejuen lurraldea, hain zuzen.
- Berriozar.
- Burlata.
- Zizur, Zizur Txikiko Kontzejuaren lurraldea, hain zuzen.
- Eguesibar, Mendillorri, Gorraitz eta Olazko Kontzejua hain zuzen.
- Ezkabarte: Arre eta Orikaingo kontzejuak, hain zuzen.
- Galar: Cordovillako kontzejuak, hain zuzen.
- Uharte.
- Elortzibar-Noain, Noaingo bizigunea hain zuzen.
- Orkoién.
- Iruña.
- Atarrabia.
- Zizur Nagusia.

2. Arestiko idazatian mugatu den hasiera bateko eremua Nafarroako Gobernuak eman beharreko foru dekretu bidez aldatu ahalko da, zerbitzuaren entitate kudeatzaileak eta toki entitate interesatuak proposaturik.

II. KAPITULUA

Entitate kudeatzailea

4. artikulua. Definizioa.

1. Foru Lege honek arautzen duen hiri barruko garraio publikoaren zerbitzua ematen duen entitateak honetantxe adierazitakoari jarraikiz egin beharko du. Foru Lege honek esleitzen dizkion eskurantzak kudeatzeko erabateko gaitasuna eta nortasun juridiko propioa izanen ditu eta haren kudeaketan 3. artikuluan adierazitako eremuko udalek parte hartu beharko dute.

2. Iruñerriko Mankomunitateari esleitzen zaizkio Foru Lege honetan biltzen diren hiri barruko garraio publikoaren eskumenak, beti ere 3. artikuluan adierazi den eremuko udalerrri guzti-guztiek Mankomunitatean integraturik dirauten bitartean.

Iruñerriko hiri barruko garraio publikoaren zerbitzua erabiltzeko udalerriek izanen duten integrazio epea 9 urtekoa izanen da, gutxienez.

3. Integrazio hori sei hilabeteko epearen barruan egin beharko da, Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aurrera; integrazioa eginda, Mankomunitateak beste sei hilabeteko epea izanen du Foru Lege honetako xede diren garraio arloko eskumenak bere gain hartzeko.

5. artikulua. Eskumenak.

1. Mankomunitateari dagokio Foru Lege honen xede diren hiri barruko garraioaren zerbitzuak planifikatu, antolatu eta kudeatzea.

2. Mankomunitateak urte anitzetako Garraio Plana prestatu eta onetsi beharko du, gutxienez, honako alderdi hauek bilduko dituena:

- Zerbitzuen plangitza, ustiatzeko programak.
- Tarifen markoa eta tarifen dirusarreraren bitartez kostu osoaren zenbat estaliko den.
- Inbertsioen programazioa.
- Aurrekontua.
- Planaren burutzearen ebaluazio ekonomiko eta finantzarioa eta, halakorik bada, planaren helburuak betetzeko, aurrekontu publikoen kargura, jaso behar diren aurrekontuena.
- Aurrera eraman beharreko neurriak justifikatzeko memoria teknikoa.

6. artikulua. Zerbitzua emateko modua.

1. Foru Lege honetan arautzen den hiri barruko garraio publikoaren zerbitzua administrazio kontzesioa jasotzen duen enpresak eman beharko du, bakar-bakarrik.

2. Dena den, arrazoi aski dauden kasuetan, kudeaketa indarra duten legeetan aurreikusitako prozedura baten bitartez egin ahalko da.

III. KAPITULUA Zerbitzuaren finantzazioa

7. artikulua. Baliabideak.

1. Foru Lege honetan zehazten den hiri barruko garraio publikoaren finantzazioak, besteak beste, honako dirusarrera hauek izan ahalko ditu:

a) Zerbitzua ustiatzearen ondoriozko dirusarrerak.

b) Foru Komunitateko Administrazioetik, Estatu-ko Administrazioetik zein Europako Batasuneko erakundeetatik jasotako dirusarrerak, nolanhikoa direla.

c) Lege honen aplikazio eremuaren barruko udalerrietatik jasotzen diren dirusarrerak.

d) Legearen aldetik, bidezko diren gainerakoak.

2. Foru Lege honen aplikazio eremuaren barruko udalerriek aurrekontuak prestatzeko orduan, Planean zehazten diren ekarpenei aurre egiteko behar diren kontusailak sartu beharko dituzte.

8. artikulua. Finantzaziorako ekarpenak.

1. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Foru Lege honetan biltzen den garraio zerbitzua kudeatzeko entitatearen aldeko kreditu bat sartuko du, Iruñeko Udalaren garraio publikoaren defizita estaltzeko Nafarroako Gobernuaren ekarpena mantentzeko. Defizita 230 milioi pezeta ingurukoa izanen da. Kopuru hori Nafarroako kontsumorako prezioen indizearen arabera eguneratuko da.

2. 5. artikuluan adierazi den Garraio Planean agertzen baldin bada arestiko zenbakian finkaturiko aurrekontutik gorako aurreikuspenik, onetsi aurretik, Foru Komunitateko Administrazioaren Finantzaziorako Akordioa beharko da.

Hori helburu, Mankomunitateak Planaren proposamena aurkeztu beharko dio Foru Komunitateko Administrazioari, Planaren edukia ebaluatu ondotik, bidezko bada, Finantzaziorako Akordioa har dezan. Erabaki horretan bidezko diren kontrol eta segimendurako baliabideak zehaztu beharko dira.

3. Planaren indarraldia amaiturik eta, horren bestez, dagokion Finantzaziorako Akordioarena, beste akordio bat onetsi bitartean, lehenbiziko hartan bestelako aurreikuspenik ez badago, beste

ekitaldi ekonomiko baterako luzatzen dela ondorioztatuko da, Nafarroako kontsumorako prezioen indizearen igoera sartuta.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Transferentzien erabakiak.

Iruñerriko Mankomunitateak Foru Lege honetan araututako garraio arloko eskumenak bereganatzeko hartu beharreko erabakian, zehaztu beharko du, halaber, zein egunetan hartuko dituen eskumen horiek. Erabaki horren berri eman beharko die Foru Komunitateko Administrazioari eta Iruñeko Udalari, garaiz, harreman juridikoen transferentzien erabakiak hartzeko denbora aski izan dezaten, ondoren Mankomunitateak horien subrogazioa har dezan.

Bigarrena. Sistema horren bideragarritasuna eremu txikiago batean.

4. artikuluan xedatutakoa gorabehera, Mankomunitatean udalerrri guztiak integratuko ez balira edo baten batek Mankomunitatetik ateratzea erabakiko balu, Nafarroako Gobernuak, Mankomunitatearen txostena ikusita, aztertuko luke gelditzen diren lurraldeetan Foru Lege honetan araututako hiri barruko garraio publikoaren sistema kudeatzea bideragarria ote den.

Nafarroako Gobernuak erabakiko balu sistema hori gelditzen den lurraldean ez dela bideragarria, urte bateko epean beste kudeaketa modu bat sustatu beharko luke.

Hirugarrena. Ukituriko kontzesioak.

Foru Lege honetan xedatutakoaren ondorioz, 3. artikuluan mugatutako eremutik atera gabe aritzen diren egungo kontzesioak ukituak izanen dira, honakoak alegia:

- Iruñeko hiri barruko garraio kolektiboa.
- Zizur-Iruña, Gazolatz eta Barañainerako adarrak barne.
- Orikain-Iruña.
- Iruña-Mutiloabeiti.
- Iruña-Uharte, Sarrigurenen barna.

Halaber, ukituak dira Añorbe-Iruña, Belaskoain-Iruña eta Etxaleku-Iruña kontzesioak, 3. artikuluan mugatutako eremuaren barruko ibilbideari dagokionez.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Ukituriko kontzesioen araubide iragankorra.

6. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hirugarren xedapen gehigarrian adierazitako kontzesioek bere horretan segituko dute.

Mankomunitatea kudeatzen hasi baino lehen, eta horrek onetsitako planaren arabera, egungo kontzesio-hartzaileek kontzesioa titular bakar baten esku uztera bideraturiko behar diren jarduketak eginen balituzte, Mankomunitateak kontzesiorako beste epe bat finka lezake, Plan horretan adierazitakoarekin bat, hamabost urtetik beherakoa beti ere.

Mankomunitateak, zerbitzuaren kudeaketa bere gain hartu ondoren, eta aurreko idazatian aipatu batasuna egin ezean, Foru Lege honetan zehazturiko eremuan garraio zerbitzua ematen ari diren enpresei eskatu ahalko die kontzesioak ustiatzeko baldintzetan behar diren aldaketak egin ditzaten, programak eta koordinazio neurriak errespetatzen direla bermatzeko, beti ere dagoen oreka ekonomikoa mantenduz.

Bigarrena. Aurretiko eskumenak mantentzea.

Mankomunitateak Foru Lege honetan araututako garraio arloko eskumenak bere gain hartu

bitartean, Foru Legeak indarra hartu aurretik zegoen eskumen banaketak bere horretan segituko du, inolako aldaketarik gabe.

Azken xedapenak

Lehena. Ordezko arauak.

Foru Lege honetan arautzen den lineako bidaiari garraioari dagokionez, bertan xedatuta ez dagoen orotan Errepideko Hiri barruko Garraio Publikoa arautzen duen Foru Legean ezarritakoari jarraituko zaio.

Bigarrena. Arautegia egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko urtarrilaren 19an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 1998ko otsailaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1997ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Espainiako Konstituzioak 36. artikuluan ezarritzen du lege bidez arautuko direla lanbide elkargoen araubide juridikoen ezaugarri bereziak eta lanbide titulatuaren jarduna. Gainera, elkargoen barne egiturak eta funtzionamenduak demokratikoak izan behar dutela adierazten du.

Konstituzio Epaitegiak adierazi duen bezala, lanbide elkargoak korporazio sektorialak dira, kideen interes pribatuak defendatzearen sortzen direnak, baina interes publikoko xedeak ere badiutuzte eta, horrexegatik, legearen aldetik, pertsona juridiko-publiko gisa edo zuzenbide publikoko kor-

porazio gisa eratzten dira, horien jatorri, antolamendu eta eginkizunak ez baitaude bakarrik bazkideen esku, baizik eta lehen-lehenik legegileen beraien derrigorrezko erabakien menpe. Izan ere, legegile horiek elkargoei esleitzen dizkiete lurraldeko administrazioei dagozkien eginkizunak edo biak lankidetzan aritzeko aukera ematen diete, administrazio eskumenen delegazioen bitartez. Horren ondorioz, korporazio horiek aipatu lurraldeko administrazioen menpe edo tutoretzapean gelditzen dira, horiek baitira elkargoek dituzten eginkizunak edo eskumenen titularrak. Tutoretza lan horrek, Nafarroaren kasuan Foru Komunitateko Administrazioaren gain dagoenak, arau bat behar du, esparrua eta hedadura zehaztu eta Nafarroako lanbide elkargoei aplikatu beharreko araubide juridikoa finkatzeko.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 44.26 artikulua adierazten du Nafarroako erabateko eskumena duela lanbide elkargoen eta lanbide titulatuaren jardunen arloetan, lege orokorreari jarraikiz. Hortaz, Nafarroan jarduten duten lanbide elkargoen araubide juridikoa Estatuko legedia orokorrak arautuko du, honakoek hain zuzen: Lanbide Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea, Espainiako Konstituzioa aldarrikatu ondoren, abenduaren 26ko 74/1978 Legeak aldatua izan zena, ekainaren 7ko 5/1996 Errege Dekretu-legea, apirilaren 14ko 7/1997 Legea eta Foru Lege hau berau, Estatuko oinarritzko legedia garatuz, Nafarroako lanbide elkargoen araubidearen ezaugarriak finkatzen dituena.

Foru Lege honek egitura erraza du. Araugin-tzako teknika dela eta, honakoak finkatu nahi izan ditu: Nafarroako Foru Komunitateko elkargoen antolamenduan izanen diren berezitasunak, lanbide elkargoen helburu eta eginkizunak, horien eta Nafarroako Administrazio Publikoen arteko elkarlana, Nafarroako lanbide elkargoen kontseiluen jarduna, elkargo eta kontseiluen araubide juridikoa eta Erregistro baten sorrera, publikotasunaren ondorioetarako.

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldea, bakarrik nahiz beste lurralde batzuekin batera, duten lanbide elkargoak Foru Lege honetan eta Estatuko legedia orokorrean ezarritakoari jarraikiz arautuko dira.

2. artikulua. Helburu eta eginkizunak.

1. Nafarroako lanbide elkargoen helburu berriazkoak dira kasuan kasuko lanbidea eta kolegiatuen interes profesionalak defendatu eta ordezkatzeari, gizartearen interes orokorrekin bat etorriz, eta lanbidearen jarduna antolatzea, bere eragin eremuaren barruan eta ezarritako lege-markoa errespetatuz, Nafarroako Administrazio Publikoek, beren zerbitzuko langileen eginkizunak direla eta, duten eskumena galarazi gabe. Gainera, honako helburu hauek izanen dituzte:

a) Kolegiatuen lan profesionala kalitatezkoa izan dadin begiratzea.

b) Kolegiatuen jarduna lanbidearen arau deontologikoen arabera eta zerbitzatzen duten gizarteak eskatutakoaren arabera dela bermatzea.

c) Kasuan kasuko lanbidearekin zerikusia duten interes orokorrak lortzen saiatzea.

d) Nafarroako Administrazio Publikoek laguntzea beren eginkizunak aurrera eramanez dituzten, Foru Lege honetan zehaztuta dagoen bezala.

2. Helburu horiek betetzeko, lanbide elkargoen eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Profesionalekin harremanetan sartzen diren hiritarren eskubideak eta interesak errespetatzen direla bermatzea, lanbidearen etika errespetatuz eta diziplina ahalmena erabiliz.

b) Organo aholku-emaitan eta langileak hautatzeko prozesuetan parte hartzea, Nafarroako Administrazio Publikoek eskatzen dietenetan.

c) Kolegiatuendako interesgarri diren jarduketak eta zerbitzu komunak antolatzea, lanbidearen ingurukoak, laguntzarakoak zein kulturalak, eta profesionalen prestakuntza jarraia sustatzea.

d) Profesionalen arteko intrusismoa eta kompetentzia desleiala ebitatzea, antolamendu juridikoa zehazturikoz baliatuz.

e) Kolegiatuen artean edo kolegiatu eta hirugarrenen artean sortzen diren arazo profesionalen parte hartzea, bitarteko edo arbitraje lana eginez, inplikaturik dauden alderdiek hala eskatzen dutenean.

f) Lansari, ordain eta zerbitzu-sari profesionalak kobratzea, kolegiatuek beraiek eskatuta, elkargo bakoitzaren estatutuaren zehazten diren baldintzetan, eta txostena egitea, lanbide-sariei buruzko aferak eztabaidatzen diren epaiketa prozesuetarako eta administrazio prozeduretarako.

g) Aurrekontuak onestea eta kolegiatuen ekarpenak arautu eta finkatzea.

h) Legearen babesean dagozkion gainerako eginkizunak, interes profesionalak defendatzeko eta elkargoaren helburuak betetzeko xedea dutenak.

3. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoekiko lankidetzak.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Lanbide Elkargoen esku utzi ahalko ditu lanbide horren inguruko administrazio eginkizunak.

Eginkizunak delegatzeko Foru Dekretu horretan zehaztu beharko dira horien hedadura, edukia, iraupena eta baldintzak, Nafarroako Gobernuak bere esku izanen duen kontrolbidea eta, horrelakorik bada, transferitzen diren baliabide pertsonal, material eta ekonomikoak.

Beti ere, Nafarroako Gobernuak izaera orokorreko jarraibideak eman ahalko ditu eta edozein momentutan eskatu ahalko du elkargoaren kudeaketari buruzko informazioa, baita ordezkariak bidali eta bidezko errekerimenduak egin ere. Jarraibideak ez badira betetzen, informazioa ukatu edo errekerimenduei kasu egiten ez bazaie, Gobernu delegazio-emaileak delegazioa atzera eramanez dezake edo, bestela, delegaturiko eskumena berak erabili.

Delegazioa eragingarria izateko, kasuan kasuko elkargoaren onespena beharko da.

2. Nafarroako Administrazio Publikoek lankidetzak hitzarmenak sina ditzakete lanbide elkargoen eta Nafarroako elkargoen kontseiluekin, interes komuneko ekintzak aurrera eramateko.

4. artikulua. Administrazio harremanak.

1. Nafarroako lanbide elkargoak, Foru Lege honetan bilduta dauden alderdi instituzional eta korporatiboek dagozkienetan, Nafarroako Gobernuko Lehendakari eta Barne Departamentuarekin jarriko dira harremanetan.

2. Lanbidearen inguruko gaiei dagokienez, elkargoak kasuan kasuko gaiarekin erlazionatuta dagoen eskumena duen departamentua izanen du bitarteko.

5. artikulua. Elkargoen autonomia.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako lanbide elkargoen arteko harremanak autonomian, partaidetzan, eraginkortasunean, lankidetzan eta elkarren arteko errespetuan oinarrituko dira.

II. KAPITULUA

Lanbide Elkargoen sortzea, bategitea, bereganatzea, izena aldatzea eta desegitea

6. artikulua. Lurralde eremua.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde osoa hartzen ez duen elkargorik ezin izanen da eratu.

2. Ez da zilegi izanen Nafarroako Lanbide Elkargo bat eratzea, baldin eta, Nafarroaz gain, beste lurralde eremu bat hartzen duen titulazio ofizial bereko elkargoa baldin badago.

7. artikulua. Eraketa.

1. Nafarroako Foru Komunitatearen barruko lanbide elkargoen sorrera Foru Lege bidez eginen da.

2. Lanbide Elkargo baten sorrera onesteko Foru Legea eman aitzin, kidego horretako titulazio ofiziala izan eta Nafarroan helbideraturik dauden profesional gehienek eskatu beharko dute. Lanbide elkargoa eskatzeko baldintzak eta sortzeko prozedura erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian ezarritakoak ez du eraginik izanen Nafarroarako lanbide elkargoa eratzten baldin bada lurralde eremu handiagoa duen beste batetik banatuz. Horretarako, Foru Dekretua beharko da, aplikagarri den arautegiari jarraikiz.

8. artikulua. Nortasuna bereganatzea.

Nafarroako lanbide elkargoek nortasuna izanen dute, Foru Lege honetan eta estatuko legerian adierazitakoari jarraikiz sortu ondoren, gobernu organoak osatzen dituzten unetik aurrera.

9. artikulua. Izena.

Elkargoen izena, beti ere, kideek duten titulazio ofizialaren arabera izanen da eta ezin izanen da eraturik dagoen beste elkargo batena bezalakoa edo antzekoa izan, ez eta osatzen duten profesionalen inguruko zalantzarik sortu ere.

10. artikulua. Bategitea, bereganatzea, izena aldatzea eta desegitea.

1. Lanbide elkargoak bategin, bereganatu, izena aldatu edo desegiteko Foru Dekretua onetsi beharko da, elkargoen ekinbidez, estatutuetan adierazitakoari jarraikiz eta ukituriko elkargo guztiei entzunaldia eman ondoren, desegitea lege bidez erabaki baldin bada ere.

2. Kidego bat desegiteko erabakiak berekin ekarriko ditu hortik datozen ondorio juridikoak eta bertan ezarri beharko da ondarea, eskubide eta

beharkizunak likidatzeko prozedura eta leudekeen diru-soberakinen helburua, elkargoen estatutuetan eta aplikagarri den arautegian xedatutakoari jarraikiz.

III. KAPITULUA

Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseiluak

11. artikulua. Kontseiluen eraketa.

1. Titulazio ofizial bereko lanbide elkargoek, jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen zati batean dutenek, kasuan kasuko Nafarroako Lanbide Elkargoen Kontseilua eratu ahalko dute.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera sortzen diren Nafarroako lanbide elkargoen Kontseiluak Foru Lege honetan eta berau garatzeko ematen diren xedapenetan ezarritakoari jarraikiz arautuko dira eta, aurreikusita ez dagoen orotan, lanbide elkargoen kontseilu nagusiei buruzko Estatuko lege orokorrak hartuko dira kontuan.

12. artikulua. Eratzeko prozedura.

Nafarroako lanbide elkargoen kontseiluak Foru Lege bidez eratuko dira eta lanbide horretako Nafarroako elkargo guztien adostasun erabakia beharko da. Kontseiluek nortasun juridiko propioa izanen dute eta aritzeko erabateko gaitasuna, aipatu Foru Legea onetsi ondoren, gobernu organoak eratzten direnetik aurrera.

13. artikulua. Eginkizunak.

Nafarroako lanbide elkargoen kontseiluek honako eginkizun hauek izan ahalko dituzte:

a) Kide diren elkargoen jarduketa koordinatzea.

b) Lanbidearen ordezkaria izatea Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean eta kasuan kasuko Kontseilu Nagusietan, horiek arautzeko arauak horretarako baimena ematen badiete.

c) Elkargoen artean sortzen diren arazoak ebaztea, ondoren jar litekeen administrazioarekiko errekurtsoa galarazi gabe.

d) Estatutuak aldatzea.

e) Elkargoen gobernu organoetako kideei dagokienez, diziplina arloko ahalmenak erabiltzea.

f) Kontseiluaren aurrekontua onestea eta elkargoek Kontseiluaren gastuetan izan behar duten partaidetza proportzionala finkatzea.

g) Nafarroako Gobernuak esleitzen dizkien eginkizunak aurrera eramatea eta, halaber, lankidetzatza hitzarmenetan zehazten direnak.

h) Foru Lege honetako 2. artikuluko 2. zenbakiko b) eta c) letren bidez, Nafarroako lanbide elkargoei esleitu zaizkien eginkizunak.

i) Profesionalendako interesgarri diren ekintzak burutzea.

j) Indarra duen legeriak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak.

IV. KAPITULUA

Elkargoean bazkidetzea eta araubide juridikoa

14. artikulua. Kideak onartzea.

1. Lanbide elkargoei kasuan kasuko titulazio ofiziala edo lanbide horretan aritzeko legeek eskatzen dituzten baldintzak betetzen dituzten profesionalak onartuko dituzte, dagokien eskabidea aurkeztuz gero.

2. Nafarroako Foru Komunitatean elkargoa duen lanbide batean aritzeko, ezinbestekoa izanen da Komunitate honetako lanbide elkargo bateko kide izatea, salbu eta beste lurralde bateko lanbide bereko elkargo batekoa dela egiaztatzen baldin badu.

3. Lanbide elkargo bateko kide izateak ez du eraginik izanen sindikatu edo elkarteetan parte hartzeko eskubideetan.

15. artikulua. Errekurtsoak.

1. Administrazio zuzenbidearen menpe dauden lanbide elkargoetako organoek emandako egintzen aurka errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko jurisdikzioan, errekurtso korporatiboen bidea amaiturik. Gainerako egintzak eskumena duen jurisdikzioan errekurritu ahalko dira zuzenean.

2. Administrazioak emandako ahalmen eta eskumenak erabiliz, lanbide elkargoetako organoek emandako egintza eta erabaki administratiboen aurka, errekurtso arrunta jarri ahalko da Nafarroako Gobernuan, administrazioarekiko bideari ekin aurretik, administrazio prozedurari buruz indarra duen legeriak ezarritakoarekin bat etorritz.

16. artikulua. Ondareen gaineko erantzukizuna.

Lanbide elkargoei, dagozkien eskumenak erabiliz, hartzen dituzten egintza eta erabakien ondorioz kaltea hartzen duten hirugarrenen ondareen gaineko erantzukizuna elkargoei beraiei dagokie, Nafarroako Gobernuak delegaturiko ahalmenak erabiliz aritzen direnean izan ezik, horrelakoetan Gobernua izanen baita erantzulea.

V. KAPITULUA

Lanbide Elkargoen erregistroa eta Elkargoen Kontseiluak

17. artikulua. Eraketa.

1. Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Nafarroako Elkargoen Kontseiluen Erregistroa eratu da, Lehendakaritza eta Barne Departamentuari atxikia, non izena eman ahalko baitute Nafarroako Foru Komunitatearen mugak gainditu gabe jardurtzen duten lanbide elkargoei eta elkargoen kontseiluei.

2. Erregistro hori publikoa izanen da eta publikotasunaren ondorioetarako eratu da, soilik. Erregistroaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez ezarriko dira.

18. artikulua. Edukia.

Lanbide elkargoen edo elkargoen kontseiluen idazpenetan honakoa ezarri beharko da:

a) Jarduketa eremua Nafarroan duten elkargo eta kontseiluen izena eta helbidea.

b) Elkargo eta kontseiluen estatutuak eta horien aldaketak.

c) Horien organoen barne araudiak.

d) Elkargoak eta Kontseiluak eratu, bategite, bereganatu, desegite edo izena aldatzearen inguruko datuak.

e) Nafarroako elkargo eta kontseiluei kanpoko beste batzuekin legez sinatzen dituzten hitzarmen eta erabakiak.

f) Elkargo eta Kontseiluetako organoen aldian aldiko osaketa.

19. artikulua. Ez-onarpenak.

Nafarroako Lanbide Elkargoen eta Elkargoen Kontseiluen Erregistroan zenbait datu sartzetik ez onartzea zilegi izan liteke, legezkotasunaren ize-nean soilik eta aski arrazoiak emanez.

Xedapen gehigarriak

Lehena. Foru Lege honek indarra hartzen duen egunean, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldearen mugak gainditu gabe, dela Nafarroa osoan dela zati batean, jarduten duten lanbide elkargoei errekurritzen dira.

Bigarrena. Nafarroako Lanbide Elkargoei Estatu legeriak onartzen dien eskuhartzea izanen dute kasuan kasuko lanbidearen Estatu mailako Kontseilu Nagusietan.

Nafarroako lanbide elkargoei eta lanbide elkargoen kontseiluei beste autonomi erkidegoe-

tan dauden lanbide bereko elkargo-kontseiluekin izanen dituzten harremanak interesaturik dauden entitateen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.

Hirugarrena. Foru Lege honetan xedatutakoa Nafarroako Notarioen Elkargoari aplikatuko zaio notariotzaren inguruko legeak ezartzerik ez dagoenean.

Xedapen iragankorrak

Lehena. Foru Lege honen bidez arautu diren lanbide elkargoek erregistro arloko beharkizunak bete beharko dituzte eta, beharrezkoa bada, estatutuak Foru Legean ezarritakoari egokitu, indarra hartu eta urte bateko epearen barruan.

Bigarrena. Foru Komunitateko Administrazioak Foru Lege honetatik datozen beharkizunak

bete daitezzen begiratuko du. Beharkizun horiek bete ezean, legez bidezko diren neurri eta egintzak hartuko dira.

Hirugarrena. Foru Lege honek indarra hartu aurretik, lanbide elkargoen egintzen aurka jarritako errekurtsioak izapidatuko dira jarri zirenean indarra zuen arautegiari jarraikiz,

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio Foru Lege hau erregelamenduz garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106 artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko Foru Lege proiektuari emenda-

kinak aurkezteko epea **1998ko martxoaren 2ko eguerdiko hamabiak arte luzatzea.**

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuak azal dezan zein neurri hartzen ari den Barne Produktu Gordinaren hazkundeak enplegu finkoaren sorkuntzan eta langabezi tasen jaitsieran islatu dadin

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo jabeldura aurkeztu du: Nafarroako Gobernuak azal dezan zein neurri hartzen ari den Barne Produktu Gordinaren hazkundeak enplegu finkoaren sorkuntzan eta langabezi tasen jaitsieran islatu dadin. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

JABELDURAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo jabeldura aurkeztu

du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

1997. urtean Barne Produktu Gordinaren (BPG) garrantzizko hazkundera gertatu da, baina ez da enplegu finkoaren sorkuntzan hein berean islatu, ordea. Aldi berean, 1998rako aurreikusi diren datuen arabera, Nafarroako BPGk antzeko hazkundera izango du. Horiek horrela jakin nahi da

- Zer neurri hartzen ari den edo hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak aipatu hazkunde ekonomikoa enplegu finkoaren hazkunde eta langabezia-tasaren murrizketa ere bilaka dadin.

Era berean, jakin nahi da Gobernuak zer politika eraginkor burutuko duen, eta zer programaren bidez burutzeko asmoa duen, Nafarroan enplegu finkoa gehitu eta langabezia murriztearen ildotik.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 12an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa, Nafarroako Gobernuia premiatzeko N-121 errepideko gasolindegia- riaren aurrean, Tafallako irtenbidean, belarri bat eraiki dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Nafarroako Gobernuia premiatzeko N-121 errepideko gasolindegia-riaren aurrean, Tafallako irtenbidean, belarri bat eraiki dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192 eta 193. artikuluen babesean, ondoko mozioa aurkezten du Osoko Bilkuran izapida dadin:

N-121 errepidean, Tuteratik Iruñera goazela, NA-115 eskualde-errepidearekin gurutzatu baino lehen, gurutzegunean hasi eta Azkoienaino baitoa azken errepide hori, errepide-zati hori erabili ohi dutenek marra etengabea aurkitzen dute eta ezkererantz egitea galarazten die horrek eta ezin dute gasolindegira edo Tafalla ostatura iritsi.

Gauza jakina da metro batzuk aurrerago eginenez gero sar daitezkeela, stop-ari kasu eman, NA-115 errepidean sartzeko ezkerretara jo, eta berriz ere ezkerretara, gasolindegira edo ostatura sar-

tzeko. Ez dirudi zailtasun horiek guztiak komenigarri direnik, aipatu errepide-zatiaren trafiko-dentsitatea handia delako, eta berez dituen arriskuak areagotu egingo liratekeelako.

Ondokoak aintzat hartuz:

1. Tafalla ostatuak 20 hogeitahortzi behargin ditu eta hogeitahortzi urte baino gehiago daramatza lanean (Erriberriko saihebidia egin baino lehenagotik, noski), bezero ugari joaten dira horra;

2. Gasolindegian, berriz, 9 langile ari dira, ibilgailu asko sartzen da eta hurrengo gasolindegia urrutiko samar daude;

3. Gobernuak ez die kontsultarik egin zerikusituzena dutenei (Tafalla Ostatuak eta gasolindegiko beharginak), haien eta zerbitzu horien erabiltzaileen interesen kalterako den neurri hori hartzeko orduan. Erabiltzaileen artean sartu behar dira ere aurrean dagoen La Nava industrialdeko enpresetako beharginak;

4. N-121 errepideak 12.480 ibilgailu/egun batezbesteko intentsitatea duela;

5. Gobernuak, printzipioz, behin betiko konponbide batez hitz egin duela.

Horiek horrela, Nafarroako Parlamentuko Herrilan eta Azpiegitura Batzordeari proposatzen zaio hurrengo erabaki proposamena onestea:

Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko Gobernuia premiatzen du N-121 errepideko gasolindegia-riaren aurrean, Tafallako irtenbidean, belarri bat eraikitzeko edo errepide hori zabaltzeko izapideei ekin diezaien.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 20an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, Nafarroako Gobernuak premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Nafarroako Gobernuak premiatzeko Euskal Autonomi Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmen berria egin dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak elkarrekin dituzten kidetasun bereziak indarreko esparru juridikoan jasota daude (Foruaren Hobetzea, Erkidegoko Estatutua eta Espainiako Konstituzioa), zeinak bi erkidegoen arteko lankidetzaren sistemak aurreikusten dituen, biendako interesa duten gaitan.

Ildo horretatik, Nafarroako Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu zuen bi erkidegoen arteko lankidetzaren hitzarmena eta Nafarroako Parlamentuak onetsi egin zuen 1996ko ekainaren 11ko bilkuran (96/06/19ko NPAO). Biendako interesa zuten gaitan koordinaziorako eta lankidetzarako esparru iraunkorra ezarri zuen aipatu hitzarmenak.

Hiruko gobernuak erori ondoren, hala ere, egungo Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuaren sustengua eskatu gabe, bere kabuz erabaki zuen Lankidetzaren Hitzarmena Gorte Nagu-

sietako izapidatzetik kentzea, eta iragarri zuen, iragarri ere (1996ko urriaren 21ean) hurrengo konpromiso politikoa bereganatzen zuela, alegia, negoziaketaldi berriari ekitea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin lankidetzaren esparru iraunkorra ezartzeko.

Nafarroako Gobernuak konpromiso politikoa hura hartu zuenetik urte bete baino gehiago igarotzen honetan, ordea, Gobernu horrek hitzemandakoa betetzeko duen ezintasun politikoa egiaztatzen da. Nafarroako Parlamentuak 1996ko ekainaren 11ko bilkuran adierazi zuen nahia, Euskal Autonomia Erkidegoarekin Lankidetzaren Hitzarmena egiteko baimena eman baitzuen, bete gabe dago oraindik, egungo Nafarroako Gobernuak hori bete gabe jarraitzen duelako.

Nafarroako IU/EB Parlamentari Taldearen ustetan, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari exijitu behar dio bere garaian Parlamentuaren beraren aurrean bereganatu zuen konpromiso politikoa bete dezan eta hauxe ere eskatu behar dio: Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren eta koordinaziorako esparru iraunkorra behin betikoz eredu dezala, biendako interesa duten gaitarako.

Horiek horrela, Nafarroako IU/EB Parlamentari Taldeak hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Gobernuak, Espainiako Konstituzioaren, Foruaren Hobetzearen eta Euskal Autonomia Estatutuaren esparruaren baitan, beste lankidetzaren hitzarmen bat izenpetuko du Euskal Autonomia Erkidegoarekin, berarekin ados jarri ondoren. Hitzarmen horrek bi gobernuak esku hartuko duten Elkartzeko Organo Iraunkorra hartuko du bere baitan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko lankidetzaren eta koordinaziorako bide egokiak taxutuko ditu, biendako interesa duten bakoitzaren esku-menpeko gaitan.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 22an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa, Nafarroako Gobernuaren premiazeko Nafarroako abeltzainek IPARLATi eman behar dizkioten kopuruei aurre egiteko kreditu-osagarriari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: Nafarroako Gobernuaren premiazeko Nafarroako abeltzainek IPARLATi eman behar dizkioten kopuruei aurre egiteko kreditu-osagarriari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztaibadari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek ezarri-

takoarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari

Nafarroako abeltzainek IPARLATi 236.000.000 pezeta eman behar dizkiotela gauza jakina da. Aipatu kopurua dagokio IPARLAT talde kooperatiboko kide diren Nafarroako abeltzainek aurre egin behar dioten mailegu partehartzaileari, aipatu enpresaren kapitalean duten partehartzea galduko ez badute behintzat, abeltzaintzaren ekoizpenaren plangintza, kontrola, ikerketa eta garapena hobetzeko.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu diogu Nafarroako Parlamentuari:

Nafarroako Gobernuaren premiaztea, gehienez lau hilabeteko epean Nafarroako Parlamentura igor dezan lege proiektu bat, bertan eztaibadatzeko. Lege proiektu horren xedea hauxe litzateke: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari 236.000.000 pezetako kreditu-osagarri bat ematea, Nafarroako abeltzainek IPARLATi eman behar dizkioten kopuruei aurre egiteko.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 26an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa, Nafarroako Gobernuaren premiazeko gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: Nafarroako Gobernuaren premiazeko gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektu bat bidal dezan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Gizarte

Gaietako Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztaibadari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, hurrengo mozioa aurkezten du Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizatearen Batzordean eztabaidatzeko

Elizbarrutiko Caritasek borondate handiz eta elkartasun-izpirituz dihardu integrazio-politiketan eta zerbitzu egiten premia larria dutenei, iragaitzakoei... Lan-zentroak paratu ditu horretarako, guztiz baztertuta daudenak hartzeko. Elizbarrutiko ordezkari den Florentino Ezkurra jaunak, ordea, hauxe adierazi du jendaurrean: zentro horiek alegalak direla, gaur egun, ez dutelako antolamendu juridiko-laboralik, ezinduentzako jardun-zentroei gertatu ohi zitzaien bezala, 1982an Ezinduak Gizarteratzeko Legea onetsi aurretik.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu dut:

Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernuari eskatzen dio Gizarteratzeari buruzko Foru Lege proiektu bat egin eta Biltzarrera bidal dezan, hiru hilabetekoo epean, aipatu jardun-zentroei legebabesa emateko, behartsu horien bizitza-kalitatea hobetzearen, eta elkarbizitza eta errotze ohiturak suspertzearen ildotik.

Foru Lege proiektu horrek, enplegu-zentro berezi horien bidez, laguntza eman behar du aipatu pertsonak aukera izan dezaten eta, horren bitartez, euren buruak baliagarri ikus dezaten eta beraien duintasunaz jabetu daitezen. Hartara, pertsona sustatzeko lana errazagoa izango da, banakako jarraipenaren bidez, eta Foru Administrazioak ematen dituen laguntza ezberdinak, oinarriko errenta barne, koordinatu eta banatzeko bidea irekiko da.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 23an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

F Saila:
GALDERAK

Tuterako Hizkuntz Eskolan ingeleseko 4. mailaren jarraipenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Tuterako Hizkuntz Eskolan ingeleseko 4. mailaren jarraipenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak Tuterako Hizkuntz Eskolan ingeleseko 4. mailaren jarraipenari buruz egin duen galderari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Beste Parlamentari batentzat egindako antzeko erantzun batean esan nuen bezala, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikulazio prozesua ez da irailean bukatzen. Iraileko lehenbiziko hamabostaldian matrikula egiteko aparteko epe bat zabaldu da, Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren ekainaren 19ko 577/1997 Ebazpenari jarraituz. Ebazpen horren bidez aipatu ikastetxe horien antolamendu eta funtzionamendua 1997/98 ikasturtean arautzeko jarraibideak onetsi ziren. Neurri horren helburua da urrian zehar beti gertatzen diren bajak betetzea.

Etorkizunari begira, hari beretik, eskolaritatea galdu gabe 160 eskola-orduetatik 49tan huts egin daitekeelako irizpidea berraztertu beharko da, bai eta ikasmaila errepikatzeari buruzkoa ere. Helburua da ikasle batek ez betetzea toki bat urte kopu-

ru arrazoizko batean baino gehiagotan, toki hori alferrik hartuz.

Beste aldetik, Hizkuntza Eskola Ofiziala ez da hizkuntzak ikasteko bide bakarra. Urrutiko H.E.O. beste eskola libratzeko sortu zen, hain zuzen ere. Gogoratu behar da Unibertsitateak ere aukera ematen duela hizkuntzak ikasteko, eta enpresek eta sindikatuek ere ikastaroak antolatzen dituztela FORCEMen bidez.

Hala eta guztiz ere, gaiaren gakoa da derrigorezko hezkuntzan, bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan, ikasle guztiek gutxienez atzerriko hizkuntza bat ikasten dutela zortzi urtez; gehienetan, gainera, Hizkuntz Eskola Ofizialetan eskaera gehien dituen atzerriko hizkuntza.

Kontraesaneko egoera honek arazoa bere egiazko tamainan planteatzen du: ikastetxe arruntetan hizkuntzak ikasteko beharra sustatu eta bultzatu beharra dago, Europako gainerako tokietan egiten den bezala, izan ere haietan ez dagoelako Hizkuntza Eskola Ofizialik.

Horren haritik, jakitera eman dugu asmoa dugula jardunaldi batzuk egiteko hizkuntzen irakaskuntzak Nafarroan duen egoera aztertzeke, eta tresna ezberdinak aztertzeke, beti ere eskura dauden baliabideen errendimendua hobetzeko bidean.

2. Ez, ezin da aurrekotik horrelako ondoriorik atera.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 13an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegi Ros

Calahorra Center merkataritza-proiektua San Adrianen kokakzteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Calahorra Center merkataritza-proiektua San Adrianen kokakzteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 27ko 69. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko azaroaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko José Miguel Nuin Moreno Foru

Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Calahorra Center merkataritza-proiektua kokakzteari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó Llevat jaunaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak harremanak izan ditu berrikitan San Adriandik gertu dagoen toki batean inbertsioa egiteko asmoa duen enpresarekin, inbertsioa Nafarroan egin ezker eskura ditzaketen laguntzen berri emateko.

Iruñean, 1997ko azaroaren 4an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--